


IPARRALDEA 51. DURANGOKO AZOKAN



2016ko ABENDUAREN 2tik 6ra

SAR HITZA

Eiki, Iparraldeak betidanik tokia ukan du Durangoko liburu eta diska Azokan, bainan hamar urte hauetan harreman horiek areagotu dira, besteak beste Gerediaga Elkartek eta Euskal Kultur Erakundeak bermatzen duten partaidetzari esker.

Bozten gara ikustea Iparraldeko eta Hegoaldeko argitalpen eta disketxeek duten toki partekatua eta bateratua euskal kulturaren hitzordu garrantzitsu honetan.

Plaza betea izanen da beste behin Durangoko Azoka, eta aurten aberatsagoa, dudarik gabe, Ipar Euskal Herriko proposamen anitzak kontuan hartuta.

Parada ezinago hobe dugu, beraz, Hego zein Iparraldeko ingurunea, idazle, zinegile, antzerkigile, kantari eta musikariak hobeki ezagutzeko eta bide berriak urratseko Iparraldearen eta Hegoaldearen artean.

Esker mila deneri eta azoka on.

Nerea Mujika

Gerediaga Elkarteko Lehendakaria

Pantxoa Etchegoin

Euskal Kultur Erakunde Zuzendaria

AURKIBIDEA

LIBURUAK	6
LIBURU-DISKOAK	10
DISKOAK	10
DVD-AK	12
BESTELAKO EKOIZPENAK	12
HITZORDUAK	13

IPARRALDETIK EKOIZPEN ETA AURKEZPEN ANITZAK

Orain duela hamar urte abiatu Gerediaga elkarte antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzari esker, Ipar Euskal Herriko argitaratzaileen ekoizpenak argiago agertzen dira Durangoko azokan.

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera %10a Iparraldeko ekoizpenak dira: 30 bat berritasun baino gehiago aurkitzen dira azokan urtero.

Azpimarra dezakegu aurten ere proposamen ainitza izanen dela Iparraldetik: ekoizpen kultural zabal bat aurkitzen ahalko da: produktu «klasikoak» diren liburu, diska eta DVD-etaz gain beste motako proposamenak aurkeztuak izanen dira baita ere; liburu-diskoak eta Seaskako egutegi berria.

Gerediagarekilako partaidetzaren hamar urteen karietara, ekitaldi ezberdin anitz proposatuak dira aurten. Urteroko liburu eta disko aurkezpenetaz gain, Azokaren guneetan Iparraldeko sortzaile eta eragile kulturalen presentzia askoz handiagoa izanen da: hitzaldiak gure lurralde mailako egitasmok berritzaile batzuen aurkezteko, parte hartzeak mahain inguruetan, haur eta publiko guziendako antzerki emanaldiak edo dokumental proiektzioak. Azoka eta karririk animatuko dira ere dantzaz, kantuz eta musikaz, giro herrikoibatean.

2016eko ediziorako datuak

- **2016eko kartelaren sortzailea:** Christine Etchevers
- **2016eko Argizaiola saria:** Euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin duten «xinaurrientzat». Patxika Erramuzpe Ipar Euskal Herriarentzat.
- **9 erakusmahain** (Goienkale 21 – 29)
- **35 berritasun:** 19 liburu, 3 liburu-disko, 9 disko, 3 DVD eta egutegi bat
- **40 kultur ekitaldi:** kontzertuak, hitzaldiak, proiektzioak, haur eta publiko guziendako antzerki emanaldiak, ...

IPARRALDEKO EGITURAK

Aurten, Euskal kultur erakundeaz gain, Iparraldetik 10 egitura izanen dira azokan: 5 argitaletxe, 3 diskoetxe eta bestelako 2 egitura. Iparraldeko partaide guzi hauek, espazio bateratu batean elkartuak dira urte guziz bezela (Goienkale 21 - 29). Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkatu da.

Argitaletxeak: Maiatz, Ikas, Gatzuzain, Zortziko eta Elkar

Diskoetxeak: Agorila, ZTK eta Saroia

Beste egitura motak: Aldudarrak Bideo eta Iparraldeko Ikastolak

Maiatz **IKAS**  **GATUZAIN**

ZORTZIKO
ARGITALETXEA

ekar

AGORILA
Productions Disks
www.agorila.com



SAROI4


kanaldude



LIBURUAK

ELKAR argitaletxea

Titulua: *Ipar Euskal Herria - Pays Basque Nord*


Egilea: Alain Miranda

Itzultzailea: Kattalin Totorika

Hizkuntza: Elebidun (Euskara / Frantsesa)

Generoa: Argazki liburua

Jende anitzek, hemengoak zein turistek, Iparraldeari buruzko liburu eder bat eskatzen dute. Liburu honen konzeptuak, 100 toki aipagarrien inguruan osatua, eskaera horri era «argi» batez erantzun nahi dio: mendebaldetikialderako karta postal bilduma bat egin ordez, 7 gairen inguruko ezenario bat, eta gai bakoitzean 14-15 toki. Toki bakoitza Alain Mirandaren argazki eder bat edo batzuez ilustratua da, eta testo labur elebidun batek komentatua.



Titulua: *Euskal artzainak - Bergers basques*

Egileak: Séverine Dabadie - Christiane Etchezaharreta


Itzultzailea: Nahia Zubeldia

Hizkuntza: Elebidun (Euskara / Frantsesa)

Generoa: Argazki liburua

Liburu hori argazki eta elkarrizketa liburu bat izanen da, gaurko Euskal Herriko artzaingoa munduaz. Edukinaz azalpen

luze bat baino hobe izanen da, segurki, helburua Artzainak Jacques Bloten aspaldiko liburura (Elkar 1994) hurbiltzea dela zehaztea, artzainetaz argazki etnografia lan pare gabea zelakoan, publiko zabalari eskainia.



Titulua: *Lantziritik... Etxalaira...*

Egilea: Gexan Alfaro «Lantziri»

Generoa: Autobiografia

Adin ederra igurikatu du Gexan Lantzirik bere bizitzako ibilbidea erdi lasterka kontatzeko. Lehen zati batean bere oroitzapen andana baten kontakizuna idazten digu eta bigarrenean bere gartzaroz geroztik idatzi dituen kantu, olerki eta bertso bilduma zabal bat ematen.



Titulua: *Ina, nere ama afrikarra - Ina neka bamuso*


Egileak: Gilles Rivière - Paxkal Bourgoin

Hizkuntza: Elebidun (Euskara / Diula)

Generoa: Lekukotasuna

Gilles Rivierek hainbat urte Burkina Fason pasa ditu, han lokarri abantzu familiarrak josi baititu, bereziki Ina bere «ama afrikarra» bihurtu denarekin. Ina 2015ean zendu da, eta Gilles Rivièrek nahi izan du emazte horretaz eta Afrikaz lekukotasun bat idatzi, kontinente ezezagun hori euskal gazte publikoari hobe deskubriarazteko.

Liburu elebiduna da, euskardiula, Paxkal Bourgoin beste «Euskaldun-afrika» batek ilustratua.




MAIATZ elkarte argitaletxea

Titulua: *Agoten in memoriam*

Egilea: Marikita Tambourin


Generoa: Ikerketa soziologikoa eta historikoa

Agoten, jendetza baztertu eta menperatu baten historia agertzen du liburuak, batez ere beren borroka ukatzen zaizkieten eskubide zuzenen ukaiteko. Baigorriko etxe baten kasutik abiatuz, dokumentu frangorekin, mende luzeetako historia bat argitzen da.



Titulua: *Maiatz 62 eta Maiatz 63*
Egilea: Lan kolektiboa
Generoa: Literatur sailak

Maiatz literatur aldizkarian, literaturaren arlo ezberdinak lantzen dira: saioa, itzulpena, antzerkia, poesia, elelaburra, kronikak, liburu aurkezpenak, literaturaren aktualitatea.



Titulua: *Xalbador azken bidean*
Egilea: Lucien Etxezaharreta
Generoa: Argazki liburua

2016eko azaroaren 10ean Xalbador bertsolariaren ehorzketa eguneko argazkiak dira, etxetik hilobirainoko bidean. Xalbadoren bertso zatiek eta sahetseko oharrek obra osatzen dute.




Titulua: *Balea*
Egilea: Jos Roy
Itzultzailea: Lucien Etxezaharreta
Hizkuntza: Elebidun (Euskara / Frantsesa)
Generoa: Poesia

Balea abere erraldoi eta mitikoa, neskaxa baten miresmen eta amets bilakatzen da. Olerkigintza garaikide batek mundu kaotiko bat kondatzen du irudi lanzinanteen bidez.




Titulua: *Egunsentia*
Egilea: Amaiur B. Blasco
Generoa: Poesia

Egunaren jarraian, biziaren eta sendimenen bilakaera kondatzen du poesia minimalista eta sarkor batek.



Titulua: *Errudun*
Egilea: Eric Dicharry
Generoa: Poesia


Poesia garaikidearen saillean koka daiteken obra bizia eta jauzkorra da, munduaren ezinjasanak eta argiak uztartzuz.



Titulua: *Ilunpetik argira*
Egilea: Antton Kazabon
Generoa: Poesia

Jon Zabaletaren marrazkiek lagundurik poesi lan hau egunerokotasun samur batean kokatzen da, biziaren

sendikortasunarekin, Xabier Lete herritarraren itzalean.




Titulua: *Murmurioa*
Egilea: Menna Elfyn
Itzultzaileak: Eli Tolaretxipi - Arantza Fernandez
Hizkuntza: Elebidun (Euskara / Galestarra)
Generoa: Poesia

Menna Elfyn galestar poeta ezaguna da. Liburua murmurio eta xuxurlatzez betea da, meditazio olerkigintza bat erakutsiz.



Titulua: *Hutsartea*
Egileak: Aritz Mutiozabal
Generoa: Poesia


Bigarren olerki liburu honetan idazle zarauztarrak, hutsaren gaia modulatzan du bide askozizelkatzentara, biziaren eta espazio isilaren gaiak dituela zizelkatzen, samintasun eta itxaropenez.



IKAS pedagogia zerbitzua


Titulua: *Haserre gorria*
Egilea: Mireille d'Allancé
Itzultzailea: IKAS pedagogia zerbitzua
Generoa: Haur literatura 3 urtetik gora

Peiok biziki egun txarra iragana du. Ez da umore onean, eta gainera, aitak erasiatu du. Orduan Peiok bere baitan sentitu du Gauza ikaragarria igaten. Gauza horrek makur handiak egin ditzake... aski goiz ez baldin bada geldiarazten. Gaia: emozioen adierazpena.



Titulua: *Madasa*
Egilea: Michel Séonnet
Itzultzailea: IKAS pedagogia zerbitzua
Generoa: Haur literatura 8 urtetik gora

Triste da Madasa ; ez daki irakurtzen ez eta ere idazten. Hitzak nola beregana, beldurrak eta haserreak gogoan osoki hartzen dutelarik ? Gaiak: gerlen ondoriozko migrazioak, analfabetismoa, haurren irakurzaletasuna.



ZORTZIKO argialetxea

Titulua: *Bakartasun handien idazlan ttipia*


Egilea: Manuela Raymond
Itzultzailea: Antton Christian Harignordoquy

Generoa: Eleberrri labor bilduma

Manuela Raymond, hogeita hamar urte, buruargia eta polita, bizitzeko lan egiten duen eta bizirik irauteko idazten duen emazte gaztea da.

Bere malenkoniaren haria zazpi eleberrri laburretan trikotatu du, umore berezian zizelkaturik. Iduri du paraleloki ibiltzen direla, gero urruntzen... bukaeran bat egiteko.

Samurtasun intimistaz betea den ironiarekin, funtsean denak hunkitzen gaituen solas metafisiko bat azaleratzen da.



Titulua: *Barnealdeko iraultzen loraldia*


Egilea: Amaia Lasa

Generoa: Saiakerak eta artikuluak

Ez zen batere aukera erreza izan 1969. urtean euskaraz idatzi nahi zuten idazleentzat gure hizkuntzan idaztea: hizkuntza idatzia bezala gutxi landua,

euskalki askotan zatitua, idazleak berak euskaraz eskolatu gabeak, euskara gorrotatzen zuen diktadura baten menpean.

Garai horietan Euskal Herrian argitaratzen ziren egunkari edo astekarrietan, elkarlanetan aritzen zen maiz Amaia Lasa: Zeruko Argia, Anaitasuna. Geroago: Argia, Egin, Egunkaria, Berria... Liburu honetan urteetan zehar idatzitako iritzi, hausnarketa, pentsaerak bildu ditugu.



Titulua: *Aitorren ametsa*

Egilea: Marie-Christine Thiry Merlo


Itzultzailea: Antton Christian Harignordoquy

Generoa: Komikia

Marie-Christine Thiry Merlo, zeramikalari eta margolariak, Aitor joaldun-surfariaren abentura dardaratsuak irudi oniriko eta kolorotsuetan kondatzen dauzku: egun batez Neptuno, itsasoen Erregeak, Euskal Kostaldeko zaintzale sutuak, huni bere biziko misio ospetsuena gomendatzen dio, ordu arte hain goxo eta ametsezkoa zeramala.

Aitorrek beharko ditu izpiritu gaiztoak haizatu, batez ere Detritus lotsagarriarena, Printze Ilun munstroa, Urdin Haundia kutsatzen duen

hondakinzalearena, uraren baitan duen indar kaltegarria gero ta gehiago zabaltzen duena.



ZTK argialetxea


Titulua: *Aro berredirena*

Egilea: Marcel Proust

Itzultzailea: Jean-Baptiste Orpustan

Generoa: Eleberrria

Marcel Proust-en obren itzulpen berri bat proposatzen digu Jean Baptiste Orpustanek.



LIBURU- DISKOAK

ELKAR argitaletxea

Titulua: *Jo Kako!... Jo!!!*

Egilea: Josiane Aguerre
Valencia - Bruno Josié - Philippe
Albor

Generoa: Haur literatura

Liburu-CD proiektu bat da, 5-6 urteko haurrendako, Kako karakoilaren zoritxarrikondaten duena: kuxkutik aldrebes atera da! Marrazkien, testo laburraren eta ipuinaren audio eta 5 haurkantu biltzen dituen CDen bidez, egoera bitxi honetan kausitzen den karakoilak bizitzen dituen emozio ezberdinak deskubritzen dira. Iparraldeko batueraz idatzita da.



Titulua: *Odolaren mintzoa*

Egilea: Xalbador

Generoa: Bertsolaritza

Fernando Aire «Xalbador» hil zela eta liburu mitiko hau lehenengoz argitaratu zela 40 urte betetzen direnean, berriz plazaratzen da, gaurkotua eta Amets Arzallusen hitzaurreaz hornitua. Oraingo argitalpena berezia izango da, liburuaz gain, bertso idatzien doinua emateko, Xalbadorri berari grabatu zitzaizkion 36 bertsoz osatutako CD batekin aurkeztuko delako.



MAIATZ elkarte argitaletxea


Titulua: *14eko gerla, 14 lekuko*

Egilea: Xipri Arbelbide

Generoa: Historia lana,
lekukotasunak

14eko gerlan egon 8 soldado eta 6 emazteen elkarrizketak dira, euskalki jatorrizkoan eta Euskara batuan. 80eko hamarkadan egin elkarrizketetan oinarritua da liburua.

Liburuarekin batean CD bat dago, elkarrizketekin.



DISKOAK

AGORILA diskoetxea

Titulua: *Iep!!!!*

Egilea: Haurrock

Generoa: Haur musika

Haurrock taldearen 5. diskoa. Musika gehienak Philippe Alborek sortu ditu eta testu gehienak Arantxa Hirigoienek idatzi.




Titulua: *Ama Lur Begira*

Egilea: Otxalde

Generoa: Folk

Kreasio eta herriko abestiak folk moldean kantatzen ditu Otxalde taldeak. Sei kantari – musikariek osatzen dute talde hori. Gitarra, pianoa, eskusoinua, eta txirulen medioz alaitasun edo ezitasun bero bat ekartzen dute dizka hontako 13 abestieri.



Titulua: *Arnasa... Hata... Bizia...*
Egilea: Peio Ospital
Generoa: Folk

Arnasa... Hata... Bizia... : hau da bizi-dun oro tai gabe akuilatzen duen indarra, hau da hain zuzen bakarkako lehen lan honen haria eta ardatza. Lau urteetako lanaren emaitza da hau, 14 kantuz osatua. Poesiaz jantziriko sorkuntzak dira, prozesu abstraktu baina oinarri-oinarriko hau erdigune izanik: Bizi indarra.




Titulua: *Loreak askatu*
Egilea: Xabaltx
Generoa: Pop / Folk / Rock

Xabaltx-en 7. diskoa dugu hor. Hirukote moduan, perkusioetan Jimmy Arrabit (Itoiz), eskusoinuan Jean Noël Lassalotte. Doinu simple eta xuxenak eskaintzen dauzkigu. Sorkuntza, berak maite dituen abesti batzuk, baita bere hiru kantu ezagunenak ber bisitatzen ditu.



Titulua: *Baigura*
Egilea: Michel Etcheverry
Generoa: Munduko musika

25 disko ateratu ondoren, euskal tenor-a berriz etortzen da Baigura diskoarekin. Disko honetan, bere herriarentzat duen maitasuna kantatzen du «Agur Euskal Herria» famatuarekin, Euskal Herriari ereserkia. 12 tituluz osatua da (4 euskaraz).



ELKAR diskoetxea


Titulua: *Anaitasunean*
Egilea: Pantxoa Carrere
Generoa: Folk

Peio eta Pantxoa bikote klasikoa desagertu zenetik, Pantxoa herri ezberdinetan (Iparraldean batipat) kantari ibili da, bere dohaiak publikoaren aurrean frogatzen. Bere bakarkako lehen diskoa dugu hor.



Titulua: *Herria eta hizkuntza*
Egilea: Xalbador
Generoa: Bertsolaritza


Herria eta hizkuntza izena daraman disko bikoitzean, 1974 eta 1977an hurrenez hurren argitaratutako *Xalbador* (Herri Gogoa) eta *Herria eta hizkuntza* (Elkar) izeneko diskoez gain, urte ezberdinetako saioetan zuzenean grabatutako bertso interesgarri zenbait ere aurkeztuko dira.



ZTK ekoizpen etxea

Titulua: *2009-2016 bilduma*
Egilea: Arramazka
Generoa: Rock

Gozotasuna eta aldarrikapena uztartzen dituzte rock oinarriarekin, baina fusioa edo pop esentzia baztertu gabe. Bi ahots, gitarra, baxua, teklatua, biolina eta bateria.



Titulua: *Metamorfosia*
Egileak: Pantxoa Carrere - Alexis Therain

Jos Roy-en olerkiak *Balea* Maiatz argitaletxeak 2016ko ekainean atera liburutik hartuak

dira. Lucien Etxezaharreta euskaraturik.



D V D - a k

ALDUDARRAK bideo

Titulua: *Makeako kabalkada*

Egilea: Aldudarrak bideo

40 urteren ondotik, agorrilaren 28an kabalkada iragan da Makean jostakin antzerki elkarteak bultzaturik. 140 parte hartzailek parte hartu dute kabalkada honetan: dantzari, kantari eta antzerkilarri. Makeako kabalkada ikusi ez dutenentzat edo lasai etxean berriz begiratu nahi dutenentzat gelditzen da filmaketa, Kanaldudek egina.



Titulua: *Jean Pitrau Pastoral*
Atharratze

Egilea: Pier Paul Berzaitz

Hizkuntza: Euskara (xiberotarra) eta azpi tituluak frantsesez

Atharratzeko herria bildu da aurtengo Jean Pitrau pastoralak aurkezteko.

Jean Pitrau Madalena auzoko laborari eta sindikalistaren bizia laburbiltzen duen istoria kondatzen du pastoralak.




Titulua: *Kataline de Erauso*

Egilea: Maite Berrogain

Hizkuntza: Euskara (xiberotarra) eta azpi tituluak frantsesez

Katalina de Erauso XVI. mendeko Donostiar famili baten laugarren alaba zen. Hamabost urtetan, Miramar jauregian kokatua zelarik, komentutik ihes egiten du eta gizon arropaz jautzen da bere burua zaintzeko. 1600ean itsasontzia hartzen du Mundu Berriari buruz joiteko eta aldizka itsasohoin, tratulari eta militar karguak hartzen ditu. Maite Berrogain Ithurbidek emazte huni buruz pastoralak bat idatzi du. Elkartearen eta pastoralaren muntatzeko lanak hasi ziren, 2016an Baionan eta Donostian hunen emaitako helburuarekin.



BESTELAKO EKOIZPENAK

SEASKA

Titulua: *Seaska federazioko ikastolen 2017ko egutegia*

Egilea: Seaska

Urte guziz bezala, Seaskako egutegi berriak euskal izenak zerrendatzen ditu. Aurtengo edizioaren orrialdeak Bob Edme argazkilararen irudiekin apainduak dira.



IPARRALDEKO HITZORDUAK

ARETO NAGUSIA: Hitzaren plaza

KABIA@: Digitalaren plaza

SAGUGANBARA: Txiki eta handien plaza

PLATERUENA: Kontzertu handien plaza

AHOTSENEA: Sortzaileen plaza

IRUDIENEA: Ikus-entzunezkoen plaza

SZENATOKIA: Arte-eszenikoen plaza

ABENDUAK 2

O S T I R A L A

ARETO NAGUSIA

17:30 - Liburu aurkezpena | Xipri Arbelbide. *14eko gerlaka 14 lekuko* (Maiatz)

19:00 - Idekitze ekitaldia | Gerediaga elkarte, Pantxoa Etchegoin (EKE), Julen Axiari eta Jordi Cassagne (musikariak)

PLATERUENA

23:00 - Kontzertua | Willis Drummond. *Tabula Rasa*

AHOTSENEA

12:20 - Kontzertua | Tristtan Mourguy. *dUAL [1/2] : Gordeka*

SZENATOKIA

10:30 - Haur ikusgarria. Oa-huetak | Hiru saio ikasleentzat, Elirale Dantza Konpainiaren partetik.

ABENDUAK 3

L A R U N B A T A

AZOKAN ETA HIRIAN

12:00tik 20:00ak arte - Kale animazioa | Polekeleke Txaranga

ARETO NAGUSIA

12:30 - Hitzaldia. Istorio bat... nola kontatu | Elena Odriozola (ilustratzailea) eta Koldo Amestoy (ipuin kontalaria). Juan Luis Zabalak gidatua.

15:00 - Liburu aurkezpena | Lucien Etchezaharreta. *Xalbador azken bidean* (Maiatz)

15:30 - Liburu aurkezpena | Amaia Lasa. *Barnealdeko iraultzen loraldia* (Zortziko)

17:30 - Hitzaldia. Euskal kultura eta EKE Iparraldeko Herri Elkargo bakarrean | Pantxoa Etchegoin (EKE).

18:30 - Mahai-ingurua. Telebista, gaur eta bihar | Xabier Landabidea (Deustuko Unibertsitatea), Andoni Aranburu (EITB) eta Ximun Carrère (Aldudarrak bideo). Marijo Deograsiasek gidatua.

KABIA@

17:00 - Ipuinen ondotik aplikazioa | I can fly enpresa

AHOTSENEA

13:00 - Liburu aurkezpena / errezitaldia | Eric Dicharry. *Errudun* (Maiatz)

15:40 - Kontzertua | Otxalde. *Ama Lur Begira* (Agorila)

17:00 - Kontzertua | Arramazka. *2009-2016 bilduma* (ZTK)

17:30 - Idazle aurkezpena / errezitaldia | Amaur Blasco. *Egunsentia* (Maiatz)

ABENDUAK 4

I G A N D E A

ARETO NAGUSIA

16:00 - Liburu aurkezpena | Lucien Etchezaharreta. *Agoten in memoriam* (Maiatz)

18:30 - Mahai-ingurua. Ondarea, ezezagun hori | Oier Gorosabel (ADES), Gaizka Aranguren (LABRIT) eta Terexa Lekumberri (EKE)

KABIA@

11:00 - Hitzaldia. Bilketa: euskal funtsen atari numerikoa | Marie-Andrée Ouret (Baionako mediateka)

11:20 - Hitzaldia. Mintzoak. Iparraldeko ahozko memoriaren ataria | Terexa Lekumberri (EKE)

13:20 - Mahai-ingurua. Dokumentazio atariak | Marie-Andrée Ouret (Baionako mediateka), Terexa Lekumberri (EKE), Imanol Esnaola, Mikel Elorza, Iñako Gurrutxaga, Lander Arteaga eta Arantza Mariskalen

16:00 - Hitzaldia. SOKA app. Joko bat IOS eta Androidentzat «Soka, euskal dantzaren urreztatzen» erakusketaren inguruan | Jakes Larre (EKE) eta Azkue fundazioa

16:50 - «Lehen urratsa» webdok-a. Euskal dantzaren transmisioa Iparraldeko 5

dantza eskoletan | Mikel Etxebarria (Radiokultura) eta Jakes Larre (EKE)

SAGUGANBARA

13:00 - Haur ikusgarria. Jo Kako!... Jo!!! | Josiane Aguerre eta Philippe Albor

15:00 - Txotxongilo ikusgarria. Ilargi arrantza | Banakike txotxongilo taldea eta Karaban'art artista kolektiboa.

16:00 - Hitzaldia. Haur literatura, hizkuntza lantzeko tresna | Aines Dufau (IKAS)

AHOTSENEA

13:00-Kontzertua | Xabaltx. *Loreak askatu* (Agorila)

13:30 - Liburu aurkezpena | Antton Kazabon eta Jon Zabaleta. *Ilunpetik argira* (Maiatz)

16:20 - Kontzertua | Begiz begi. *Hatsa* (Baga Biga)

17:00 - Kontzertua | Bidaia. *Hitza* (Elkar)

IRUDIENEA

17:30 - Mahai-ingurua. Euskal Zinemagintza Iparraldean | Ximun Carrère (Aldudarrak bideo) eta Frank Suarez (EKE)

18:00 - «Dans leur jeunesse il y a du passé» dokumentala | Elsa Oljar-Ines zuzendariak aurkeztua.

ABENDUAK 5 ASTELEHENA

ARETO NAGUSIA

12:30 - Hitzaldia. Istorio bat... nola haizatu | Aizpea Goenaga (Etxepare Euskal Institutua) eta Beñat Achiary (musikaria)

IRUDIENEA

18:00 - «Maitia nun zira» dokumentala | Elena Canas eta Ainara Menoyo, Ainara Menoyok aurkeztua.

SZENATOKIA

12:00 - Ikusgarria. Emoziotegia, emozioen hiztegia | Bi'Arte taldea

ABENDUAK 6 ASTEARTEA

ARETO NAGUSIA

11:30 - Hitzaldia. Iparraldeko baloratu musikak lagun: Hegalaldia egitasmoa | François Maton (Atabal), Ainhoa Datchary (Moi Moi kolektiboa) eta EHZ

14:30 - Hitzaldia. HAMEKA karrikako arte eta euskal antzerkiaren Fabrika | Filgi Claverie (Errobi Herri Elkargoa)

SAGUGANBARA

16:00 - Hitzaldia. Arte eta kultur heziketa publiko gazteentzat | Maika Laborde Zubieta eta Julie Bercetche (Hego Lapurdiko Hirigunea).

AHOTSENEA

17:00 - Kontzertua | Pier Paul Berzaitz. *Egusentziaren kantak*

SZENATOKIA

12:30 eta 18:00 - Ikusgarria. Francoren bilobari gutuna | Le Petit Théâtre de Pain, Artedrama eta Dejabu

51. DURANGOKO AZOKA

2016 ko ABENDUAREN 2tik 6ra

Durangaldeko Adiskideen



eke icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Lota jauregia BP6
64480 UZTARITZE
Tel: (0033) 5 59 93 25 25

www.durango.eke.eus

Harremanetarako:

Marion Lastiri | marion.lastiri@eke.eus
Frank Suarez | frank.suarez@eke.eus